MARIA LUISA IZQUIERDO MARCULETA - 15915892F
Firmado digitalmente por MARIA LUISA IZQUIERDO MARCULETA - 15915892F
Fecha: 2021.03.26 14:08:52 +01'00'

Esp. 2021K1150007

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, HONDARRIBIKO UDALEAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUENA.

1. LEHIAKETAREN GAIA:

Lehiaketa honen helburua Hondrribian udal etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea kontratatzea da.

Lehiaketa hau arautuko da plegu honetan eta baldintza ekonomiko administratiboen pleguan dauden xedapenen arabera.

Etxez Etxeko Laguntzako zerbitzuak ematea Etxez Etxeko Laguntzako Zerbitzuaren Araudiak araupetuta dago, eta etxez etxeko laguntza eremua arautzen duten gainerako lege xedapen guztiak ere aplikagarriak dira.

2. ZERBITZUAREN DEFINIZIOA:

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean datzana; horretarako, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko eta beren komunitatean txertatzeko, bakartzea saihestuz.

3. HELBURUAK

Etxez etxeko laguntza zerbitzuak honako helburu hauek ditu:

a) Autonomia galerari aurrea hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako.

b) Erabiltzaileen segurtasun sentipena indartzea.

c) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketen beharrizanak antzematea.

d) Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze edo/eta bazterketa egoerak saihestea.

e) Norberaren etxean ahalik eta luzaroen eta bizi kalitate egokiarekin bizi daitezen ahalbidetzea, ahal den heinean; horrela, atzeratu edo saihestu egingo da ostatu zerbitzuetan edo egoitzetan sartu beharra.

Hondarribiko Udala

f) Erabiltzaileari laguntzen dion familia-gizarte sareko zaintzaileei laguntzea, eta zaintzari loturik dituzten eginbeharrak neurri batean arintzea, baldintza egokiak izan ditzaten beren garapen pertsonal, profesional eta sozialerako.

g) Oro har, erabiltzaileaz arduratzen den zaintzaile nagusiaren ordez jardutea, tarteka, hura falta denean.

h) Adingabeen zaintzan laguntzea, haien guraso edo tutoreek zaintza egokia ematerik ez dutenean.

i) Hainbat faktore psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisi egoeran dauden familien bizikidetza giroa hobetzea eta faktore horietatik eratorri ohi diren arriskuei aurrea hartzea.

4 HARTZAILEAK

Oro har, ondorengo profila izango dute zerbitzu honen erabiltzaileek: autonomia galeraren edo ahultasun egoeraren ondorioz, norberaren etxebizitzan bizitzen jarraitu ahal izateko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza –aldi batekoa nahiz iraunkorra– behar duten pertsonak edo/eta familiak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenari jarraituz, mendekotasun egoeran edo mendekotasuna jasateko arriskuan dauden pertsonei zuzendutako zerbitzua da etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Honako pertsona edo/eta familia hauek ere izan daitezke etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak:

- Beren kasa moldatzeko zailtasunak direla medio eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edo/eta jarduera instrumentalak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak.
- Familiek zaindu ezin dituzten edo behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adingabeak.
- Zama astunegia, harreman gatazkatsuak, gizarte egoera egongaitzak edo/eta gaixotasun fisiko edo/eta psikikoen ondoriozko arazoak dituzten familiak edo pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenak.
- Aldi bateko gaixotasun edo gaixotasun terminal batek jotako pertsonak, gaixotasunaren ondorioz eguneroko bizitzako jardueretarako beste norbaiten laguntza behar dutenak.
- Kasuaren arduradunaren iritziz eta haren irizpideei jarraituz zerbitzu honen arreta jasotzea dagokien pertsona edo/eta egoerak, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak baimenduak.

5 ESKU-HARTZE MOTAK

Beti Gizarte Zerbitzuen Departamentuari egokituko zaio zehaztea esku-hartzeen intentsitatea eta maiztasuna, kasu bakoitzaren arabera.

Hondarribiko Udala

ZERBITZUAREN BAITAKO PRESTAZIOAK

Zerbitzu honetan honako prestazioak sartuko dira:

1 Informazioa: Gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera emateko, behar den denboraz eta behar den moduan.

2 Jarraipenaren balioespena: Gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldian aldiko ebaluazioak egiteko, kasuan-kasuan dagokion sakontasunaz.

3 Etxeko laguntza: Erabiltzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa. Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei eta erabiltzailea bizi den etxeko instalazioen mantentze garbiketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

3.1. Elikadurarekin loturikoak
- Otorduak antolatzea eta prestatzea, horretarako erabilitako ontzi eta tresnak garbitzea eta jasotzea barne
- Janaria erostea
- Erabilitako ontziak eta tresnak garbitzea eta lehortzea

3.2. Jantziekin loturikoak
- Arropa etxean garbitzea
- Arropa lehortzen jartzea
- Arropa gainbegiratzea
- Arropa antolatzea eta gordetzea
- Arropa etxean lisatzea eta tolestea
- Arropa erostea
- Erabili beharreko elementu guztiak prestatzea eta jasotzea

3.3. Etxeko instalazioak mantentzearekin loturikoak
- Etxea txukuntzea
- Gainaldeak produktu egokiekin garbitzea
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea
- Hautsa kentzea
- Zorua garbitzea eta xurgagailua pasatzea
- Errezelak eta leihoak zabaltzea, etxea aireztatzea
- Errezelak kendu, garbitu eta jartzea
- Komuna garbitzea
- Sukaldea garbitzea
- Leihoetako kristalak garbitzea
- Zaborra zaintzea eta ateratzea

- Zerbitzua hasi aurretiko garbiketa orokorra
- Jabekideen erkidegoko espazioak garbitzea
- Ohea egitea eta oheko arropa aldatu eta arropa zikina kentzea

4 Laguntza pertsonala: Erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa:

4.a. Zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, batetik bestera joatea, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk.

4.a.1. mugikortasunarekin eta ingurunean moldatzearekin loturikoak:

- Ohetik altxatzeko, oheratzeko edo eserlekutik altxatzeko laguntza, lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.
- Etxean nahiz etxetik kanpo batetik bestera mugitzeko laguntza (komunera, gela batetik bestera, eskolara, garraiora, eguneko zentroetara, osasun etxeetara joateko laguntza), laguntza teknikoak baliatuta, halakorik balego.

4.a.2. Garbitasun pertsonalarekin loturikoak:

- Garbiketa eta higiene pertsonala (laguntza teknikoak baliatuta, halakorik balego; azazkalak moztea, bizarra egitea, ilea garbitzea, azala hidratatzea eta arropak aldatzea).

4.a.3. Jatearekin loturikoak:

- Jateko laguntza
- Edateko laguntza
- Janaria berotzea
- Erabilitako tresnak eta ontziak garbitzea eta jasotzea

4.a.4. Jantziekin loturikoak:

- Janzteko eta eranzteko laguntza
- Eguneroko arropa prestatzea

4.b. Jarduera instrumentalak, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen dutenak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea…) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak.
Oro har, aurreko egitekoekin lotura duten aurretiko jarduerak, egiteko horiek gauzatzeko elementuak prestatzea edo/eta haietatik eratorritako jarduerak.
Bereziki, hala badagokio, jarduera horiek egiteko behar diren trebetasunei dagokien entrenamendua.

4.b.1. Komunitatearekiko harremanarekin loturikoak:

- Haurtzaindegi, ikastetxe, garraio, eguneko zentro, osasun etxe, komunitate-ekipamendu eta abarretara iristen laguntzea.

4.b.2. Ingurunearekiko komunikazioarekin loturikoak.

- Etxean eskabideak egiten laguntzea, korrespondentzia jasotzea, gutunak azaltzea eta bestelakoak.

- Bankuan, osasun arloan, errekurtsoak izapidetzen, dokumentazioa eskatzen eta ematen laguntzea, besteak beste.

4.b.3. Osasunarekin loturikoak:

- Medikuak agindutako botikak (ahotik hartzekoak) erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen direla gainbegiratzea.
- Medikuekiko hitzorduen kontrola eta jarraipena.

5 Gizarte laguntza: gizarteratzen eta bizitzan modu autonomoan moldatzen laguntza ematen duen prestazioa da, bereziki isolamenduari aurre hartu eta murriztea helburu duena.
Aurreko prestazio guztienetan inplizituki jasotako prestazioa ere bada, aipaturiko prestazio horiek gauzatzean, aldi berean, akonpainamendua jaso eta ingurunean parte hartzeko estimulua jasotzen duelako.

Honako jarduera hauek barne hartzen ditu:

5.1. Zaintzarekin loturikoak:

- Adingabeentzako zerbitzuetan, ingurune komunitarioan aritzeko laguntza eta adingabearen zaintza gauzatzean suertatzen diren bestelako egitekoak.

5.2. Bakardadea eta isolamendua saihestearekin loturikoak:

- Etxe barruan laguntza ematea pertsonarengan eragina izango duten jarduera burutuz, esaterako, irakurketa, etab.
- Etxetik kanpo laguntza ematea, bakardadean, gizarte bazterkerian eta/edo zaurgarritasun bereziagatik segurtasun falta duten pertsonei, lagunartea aurkitzeko aukera emango dien gunetara bideratzeko.

6 Beste prestazio osagarri edo berezi batzuk:

- Higiene arazo larriak dituzten etxeetako garbiketa orokorra.
- Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea.
- Egoera bereziei erantzunez, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbesteko jotzen diren beste jarduera batzuk gauzatu ahal izango dira, gizarte langintzako teknikariak hala proposatuz gero eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jarduera horiek berariaz baimenduz gero.

7 Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua:Atsedenerako zerbitzua zaintzaile nagusiarentzat; mendekotasun egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dagoen pertsona zerbitzuan sartuz aldi baterako edo zerbitzu horretan emandako intentsitatez aldi baterako areagotuz.

ZERBITZUAZ KANPOKO JARDUERAK

Ondorengo jarduerak etxez etxeko laguntza zerbitzutik kanpokotzat jotzen dira:

- Etxebizitza berean bizi arren, udal zerbitzu teknikoek zerbitzuaren onuradun jotzen ez dituzten pertsonen laguntza pertsonala.
- Etxebizitza berean bizi arren, zerbitzuaren onuradun jotzen ez diren pertsonak zuzenean mesedetzen dituen etxeko laguntza.

Hondarribiko Udala

- Prestakuntza espezifikoa eskatzen duten osasun arloko jarduerak (indizioak jartzea, , tentsioa hartzea, zundak maneiatzea, ultzera edota zarakarrak tratatzea, ezagutza espezifikoa eskatzen duten botikak ematea eta horien antzerakoak).
- Etxean konponketa handiak egitea: margotzea, etab.
- Erabiltzailea langilearen ibilgailuan garraiatzea.
- Ez izatea erreferentziazko pertsona sendagile kontsultetan.
- Udaleko zerbitzu teknikoek prestatutako txostenean aurreikusten ez diren zeregin guztiak

6. EZAUGARRIAK

Etxez etxeko laguntza zerbitzua onuradunak lo egiten duen edo/eta eguna igarotzen duen tokian (etxebizitza partikularra) emango da, Hondarribiako udalerrian.

Onuraduna familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, zerbitzua etxe batean baino gehiagotan eman ahal izango da, baldin etxea Hondarribiko udalerrian badago.

Hondarribiko Udalak erabakiko du noiz hasi, aldatu edo bukatu Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, eta horren berri emango die, bai onuradunari, eta bai prestazioa emango duen enpresa esleipendunari.

1 Laguntza emateko egunak
Oro har, urteko egun guztietan emango da zerbitzua, jarraibide teknikoen arabera.

2 Zerbitzuaren intentsitatea
Zerbitzuaren denbora mugak erabiltzaileen beharrizanen banakako ebaluazioaren arabera zehaztuko dira, intentsitatea pertsona erabiltzailearen akordioarekin ezarriz, eta indarrean dagoen zerbitzuaren araudiak esaten duenarekin bat eginez.

Orduak 15 minutu baino gutxiagokoak ez diren tarteetan banatuko dira, eta sarrera bakoitzean zerbitzuak gutxienez 30 minutuko iraupena izango du; fakturatutako ordu edo tarte bakoitza lanean egindako denborari dagokiola ulertuz.

3 Arreta orduak
Zerbitzuaren ordutegia malgua da; nagusiki, 07:00etatik 22:00etarako ordutegiaren barruan emango da.
Nolanahi ere, zerbitzuaren ordutegia zabaldu egin ahal izango da, balioespen teknikoaren arabera, muga batzuen barruan.

- Laguntza pertsonalari dagokionez, udal teknikariek zehaztuko dute ordutegia, laguntza eskatzailearen ohiko ordutegiak eta beharrizanak kontuan hartuta.

- Ginerako laguntza zerbitzuetan, udal teknikariek zerbitzua ematen duen enpresarekin batera zehaztuko dute ordutegia, zerbitzu horiek ematen dituzten langileen ordutegien arabera.

Hondarribiko Udala

7 ANTOLAKETA

7.1. Udalaren eskumenak

Udalak, Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren bidez, ondoko eskumenak ditu etxez Etxeko laguntza zerbitzuaren garapenean:

- Udalerrian dauden beharrak antzematea.
- Zerbitzua arautu.
- Finantzaketarako dauden baliabideak kudeatzea.
- Erantzunik eman ez zaion eskaerari buruzko informazioa jasotzea.
- Emandako zerbitzuaren publizitatea gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Zerbitzua eskuratzeko eskabideetan planteatzen diren beharren diagnostikoa egin eta horiek baloratzea.
- Zerbitzua eskuratzeko eskabideei irtenbidea ematea eta prestazioak esleitzea.
- Erabiltzaileak behar duen arreta maila, intentsitatea eta zerbitzuaren ordutegia diseinatu eta planifikatzea.
- Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zenbatekoa izango den ebaztea.
- Onuradunen egoeraren jarraipena egin eta zerbitzuaren kalitatea aztertzea.
- Laguntzailea aldatzeko eskatzea, zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko, udaleko langile teknikoek beharrezkoa dela uste badute.
- Zerbitzu bakoitza berariazko jakinarazpen bidez esleitu eta erakunde esleipendunari jakinaraztea, Udalaren etxez etxeko laguntza programaren arduradunaren bitartez:
    - Erabiltzaileen datu pertsonalak eta espediente zenbakiak:
        - ✓ Alta
        - ✓ Behin betiko baja
        - ✓ Aldi baterako etenaldiak
    - Zerbitzuaren estalduran eta ezarritako zerbitzuetan egin beharreko lanetan gertatzen diren aldaketak (murrizketak edo luzapenak).
    - Kasu bakoitzean zerbitzua ematerakoan, esleitutako estalduraren ordu-kopurua, aldizkakotasuna eta ordutegi zehatza.
    - Onuradun bakoitzaren arretarako ekintza zehatzak.
- Enpresa esleipendunak antolatutako zerbitzu ordutegiaren banaketa onartzea edo ez onartzea.
- Erabiltzaile bakoitzari buruz enpresak dauzkan banakako fitxak kontsultatzea edo horietara sartzea.
- Zerbitzua fiskalizatzea, kontratu honen xedearekin lotutako dokumentazioa aztertuz eta ikuskapenak eginez zerbitzuetan et etxeetan edozein unetan. Ikuskatzeaz arduratzen den langileriak eskura izango ditu zerbitzua antolatzeko beharrezkoak dituen datu guztiak, eta erakunde esleipendunak eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

Eskumen horietako bakar bat ere ezin izango zaio Udala ez den beste erakunde bati eman, interpretatu, pasatu edo eskuordetu, eta Udalak bere langileriaren bidez erabiliko du informazioa.

7.2. Erakunde esleipendunaren betebehar teknikoak

7.2.1. Enpresako langileriari dagokionez

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emango duen adjudikazio-hartzaileak aurreikusi beharko du zein antolaketa-egitura beharko den zerbitzua modurik onenean emateko, ondorengo profesionalak jarriz kontratua betetzeko:

- Etxez Etxeko Langileak une bakoitzeko eskariari aurre egiteko. Erabiltzaileari arreta emateko ematen zaizkion lanak egitea, horretarako ezarritako ordutegi eta helburuak beteaz Besteak beste, ondorengo egitekoak edukiko dute:
    - Zerbitzuaren arduradunak izendatutako lanak eta egitekoak egingo dituzte, eta zerbitzu horretan ezarritako helburuak betetzeko ahalegina egingo dute.
    - Zerbitzuaren funtzionamendua erasan dezaketen gertakarien berri emango diote arduradunari.
    - Zerbitzuaren arduradunarekin lan egingo dute, erabiltzaileen egoeraren jarraipena egiteko.
    - Zorrotz beteko dute kasuan kasu ezarritako ordutegia, eta zerbitzua emateko sortzen diren eragozpenen berri emango diote gizarte-langileari.
    - Berariaz antolatzen diren prestakuntza-ikastaroetan parte hartuko dute.

- Teknikari arduraduna (koordinatzailea); Etxez etzeko laguntzaileek garatutako lanen koordinazio, jarraipen, eta gainbegiratze lana egingo du, ordezkapenak planifikatu eta kudeatuko ditu (arreta zuzeneko langileen profila, ordutegiak, lanak), zerbitzuen arteko traslado sistema, gorabeheren parteak eta komunikazioa, kasuak gainbegiratu eta jarraipena egitea zerbitzuaren kalitatea bermatzeko moduan, etab.
    - Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako teknikariek egindako eskaerak eta proposamenak jasotzea.
    - Etxez etxeko langileen ordutegiak antolatzea eta koordinatzea.
    - Zerbitzuaren betetze kualitatiboa eta kuantitatiboa kontrolatzea kasu bakoitzean. Horretarako, bi hartu-eman izango ditu gutxienez urtero, eta horietako batek erabiltzailearen etxean izan behar du.
    - Zuzenean harremanetan izatea etxez etxeko langileekin, eta kasu bakoitzaren ezaugarriei buruzko informazioa ematea haiei; halaber, zerbitzua behar bezala emateko aintzat hartu beharrekoak izango diren jarraibide-ildoak ezarriko ditu. Hori guztiak langileen eta entitate kontratatzailearekin harremanetan izanda egingo du.
    - Udal-teknikariekin koordinatuta, aldizka berrikustea kasu bakoitza, eta dagozkion doikuntzak egitea.
    - Zerbitzua nola ematen den ikuskatzea.
    - Hitzeko edo idatzizko txostenak egitea teknikarientzat. Lortutako informazio guztia adieraztea, kudeaketan gardentasun osoa erakutsiz.
    - Etengabeko ebaluazioko prozesuak artikulatzea. Bilerak egitea laguntzaileekin eta udal-teknikariekin.
    - Etengabeko prestakuntzako prozesua diseinatzea. Metodologia eta dokumentazioa prestatzea.
    - Urteko memoria

Hondarribiko Udala

Enpresako langileek alor horretan beharrezkoak diren prestakuntza eta tituluak izango dituzte, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

Enpresa kontratistak prestatuko ditu langileak emango duten zerbitzuko eginkizunetan arlo profesional eta teknikoan, eta bera izango da garatzen diren lanen eta prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoen arduraduna.

Erakunde esleipendunak bermatuko beharko du zerbitzua EAEko edozein hizkuntza ofizialetan ematen dela.

7.2.2. Ekipamenduari, materialari eta euskarri teknikoei dagokienez

Departamentuko langile teknikoekin harremanak errazteko, erakunde esleipendunak posta elektroniko, fax eta telefono zerbitzua izango du martxan goiz eta arratsaldez astelehenetik ostiralera eguneroko komunikazioetarako zerbitzuen hasierari dagokionez, etxez etxeko laguntzaileei kasuak esleitzeko, zerbitzuen baja eta etenetarako, eta gorabeheretarako.

Etxez etxeko laguntzaile lana egiten duten langileek jantzi egokia izango dute eman beharreko zerbitzuaren arbara.

Erakunde esleipendunak beharrezkoa ikusten duen beste edozein material mota izango du, erakundeko erabiltzaileei arreta egokia emango zaiela bermatzeko.

Enpresa esleipendunak honako agiri eta euskarriak izango ditu, eta Departamentuak une oro horiek eskuratzeko eskubidea izango du:

- Fitxategi bat, eta bertan etxez etxeko laguntzaren erabiltzaileen administrazio datuak eta teknikoak banaka jasoak egongo dira; Udalak fitxategi hori eskura izateko eskubidea izango du. Bertan hauek izango dira:
    - Identifikazioa.
    - Espediente zk.
    - Eskabide data.
    - Zerbitzua ematen hasi zeneko data.
    - Zerbitzuaren modalitatea.
    - Zerbitzuaren intentsitatea.
    - Zerbitzuaren edukia osatzen duten zereginak.
    - Zerbitzua eskaintzean gertatutako aldaketak.
    - Zerbitzua eskaintzean gertatutako aldaketak.
    - Erabiltzailearen egoeraren aldaketak
- Kasuaz arduratzen diren udal arduradunei adierazitakoak.
- Prestazioa amaitzen deneko data.
- Iradokizunen liburu bat
- Erreklamazioen liburu bat.
- Ahoz eta idatziz egokitutako euskarri informatiboak; hauek, bestalde, erraz ulertzeko moduko hizkuntzan egongo dira, prestazioan parte hartzen duten pertsonek erabil dezaten, erabiltzaileak informatzeko duen eskubidea bermatzearren.

- Dokumentuzko euskarriak barneko informazioa helarazteko (gorabeherak, ordu-kontrola, jarduera kontrola, etab.), deskribatzeko txostenak prestatzeko, eta erabiltzailearekin harremanetan jartzeko.
- Prozedurei buruzko fitxa bat; bertan hauek deskribatuko dira: Etxeaz Etzeko laguntza zerbitzu egokirako arreta zuzeneko ereduak, prozedurak, eta jokaerak.

Zerbitzuaren prestazioari dagokionez:

Nahitaezkoa da ondoko irizpideak betetzea:

- Hurbiltasuna: zerbitzuak laguntzaileari esleitzerakoan ahalegina egingo da etxe bakoitzerako joan-etorriak ahalik eta motzenak izan daitezen. Edonola ere, zerbitzuen arteko joan-etorriak ez daude sartuta udal zerbitzu teknikoek zenbatetsitako denboran. Hau da, arretarako ezarritako denbora bakar-bakarrik zerbitzua burutzen emandako denbora izango da.
- Txandakatzea: Ez daitezela aldaketak izan erabiltzaileari esleitutako langile laguntzaileari dagokionez. Eta ahalik ea aldaketa txikienak izatea zerbitzuak emateko ordutegian.
- Konfidentzialtasuna: Erakunde esleitzaileak erabiltzaileen konfidentzialtasuna eta intimitatea bermatzeko neurri teknikoak eta antolaketa alorreko neurriak hartu beharko ditu.
- Intimitatea: Etxez etxeko laguntzaileak edo erakunde esleitzaileko beste edozein langile edo profesional ezin izango da erabiltzailearen etxean sartu bera han ez dagoela.
- Egokitasuna: Esleitzailea esleitzerakoan egiaztatuko da ez dagoela familia loturarik erabiltzailearen eta laguntzailearen artean, 2. mailako kidetasuna bitarte eta 3. mailako odol-ahaidetasuna bitarte.

Erakunde mailegariak zerbitzuaren prestazioari zazpi eguneko epearen barruan **ekin** beharko dio, Udal zerbitzu teknikoen aldetik altaren agindua jasotzen denetik aurrera. Udal langile teknikoek premia dagoela adieraziz gero, zerbitzua aipatutako alta-agindua jaso ondoko 24 orduen barruan hasi beharko dute.

Zerbitzua abian jarri aurretik, Enpresa Esleipendunaren koordinatzaileak, ahal dela Udal teknikariarekin batera, bisita egingo dute etxebizitzara, erabiltzailea eta etxea ezagutzeko eta zerbitzuko zenbait alderdi zehazteko, besteak beste ordutegiak, laguntzaileen egokitasuna…

Langile laguntzailea aurretik lan egin ez duen kasu bati atxikitzen zaion guztietan, koordinatzailea langile laguntzailearekin joango da etxe berrira lehenengo egunean.

Sartu ondorengo lehenengo hiru hilabeteetan ulertuko da pertsonak **egokitze epean** daudela, zerbitzuaren ezaugarriei eta funtzionamenduari dagokionez. Erabiltzailearen erreferentziazko Gizarte Laneko Teknikaria edo zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek une oro sortzen diren arazoen berri emango diote enpresari, eta egokitzapen ona lortzeko beharrezko irtenbideak bilatuko dituzte.

Enpresa esleipenduneko zerbitzu zentralen eta etxez etxeko laguntzaileen arteko komunikazioak eskura egongo dira zerbitzua dagoen ordu guztietan, komunikazio hori bermatzen duten protokoloaren eta sistemen bidez.

Prestazioan gertatzen den edozein egoeraren berri eman beharko zaie zuzenean udaleko langile teknikoei, eta ez da etxez etxeko laguntzailearen eta enpresaren edo horien bien eta familiaren artean konpontzen saiatuko, Langile tekniko horiek jakin gabe.

Udal langile teknikariek xedatutako salbuespen egoeretan izan ezik, eta familiaren intimitatean nahasmena eta desegokitzapenak ez sortzeko, esleipenduna saiatuko da ahalik eta **aldaketa txikienak** izan daitezen erabiltzaileenganako arretan (ordutegiak, egunak…). Erakundek irizten badu komeni dela aldaketaren bat egitea berariaz adierazi behar dio udal teknikariari, proposamena arrazoituz, eta hark hartuko du azken erabakia.

Esleitzaileak behar adina txosten eta datu prestatu behar ditu udal zerbitzu teknikoek eskatutako zerbitzuei dagokienez.

Gizarte laneko teknikariek segimendu jarraitua egingo dute, zerbitzua onuradunen beharrei egokitzen zaien ikusteko. Hala, dagozkien aldaketak proposatuko dituzte eta, onuradunekin batera, proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko dute. Era berean, joan beharra ikusiz gero, etxera bertara joateko aukera ere izango dute, eta baita aldian behin etxeko laguntzaileekin egoteko ere.

8. ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Zerbitzuaren jarraipena egiteko udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazioa etengabea izango da, eta hartarako bilerak ezarri ahal izango dira.

Udal teknikariak begiratuko du zerbitzuak eman direla eta kalitatezkoak izan direla.

Erakunde esleitzaileak bere langile teknikariaren eta Udalak hartarako emandako sistemaren bidez ondoko informazio dokumentatua emango die udal zerbitzuei, aldizkakotasun honekin:

- **Gertatu ahala:**
  - Zerbitzuaren prestazioa aldatzen duten gorabeherak daudenean, lehenengo 12 orduetan, horien berri izaten denetik.
  - Berehala adieraziko dira larritasun edo eraginaren ondorioz zerbitzuaren prestazioa aldatzen duten gai guztiak.

- **Hilero** (hurrengo hilaren 5. egunerako):
  - Hileko faktura.
  - Eskainitako zerbitzuak fakturatu eta ordaintzeko beharrezko agiriak; hauetan jasoko dira erabiltzailearen datuak, erabiltzaileak emandako hileko zerbitzuaren orduak eta zerbitzu mota, eta erabiltzaile bakoitzeko bere zenbateko osoa., BEZa bereizita.
  - Erakunde esleitzaileak hilero hilabete horretan gertatutako kexa, erreklamazio, iradokizun eta gorabeheren berri emango du, baita emandako erantzunaren laburpen txiki bat ere.

Erakunde esleitzaileak gutxienez urtean behin balorazioak egingo ditu zerbitzua ematen den etxean.

Hondarribiko Udala

Udal administrazioak etengabe ikuskatu eta begiratuko ditu kontratatutako zerbitzuak, eta edozein une eta tokitan langileei nahiz materialari buruz egokiak ikusten dituen ikuskapenak egin ahal izango ditu. Ikuskatzeaz arduratzen den langileriak eta Udalak berak eskura izango ditu zerbitzua antolatzeko beharrezkoak dituen datu guztiak, eta erakunde esleipendunak eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

Aldian aldiko bilerak eta bestelako jarraipen sistemak sustatuko ditu erakunde esleitzailearen arduradunekin, zerbitzuaren kudeaketari eta garapen orokorrari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko, eta esku-hartzeak koordinatzeko.

Elektronikoki sinatutako dokumentua
Gizarte langilea,

Xabier Ruiz de Azua Altube

Firmado digitalmente por Xabier Ruiz de Azua Altube
Nombre de reconocimiento (DN): cn=Xabier Ruiz de Azua Altube, o=Hondarribiko Udala, ou, email=xruizdeazua@hondarribia.eus, c=ES
Fecha: 2021.01.29 10:42:59 +01'00'

Hondarribiko Udala

Ref. 2021K1150007

PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS QUE HA DE REGIR EN EL CONCURSO PARA LA CONTRATACIÓN DE LA GESTIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE AYUDA DOMICILIARIA DEL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA.

1. OBJETO DE CONCURSO:

El objeto del presente concurso es la contratación de la prestación del servicio municipal de ayuda domiciliaria de Hondarribia.

El concurso se regirá por las disposiciones contenidas en el presente pliego y en el pliego de condiciones económico administrativas.

La prestación de los servicios incluidos en el Servicio de Ayuda Domiciliaria está regulada por el Reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda Domiciliaria, siendo asimismo de aplicación todas las disposiciones legales que regulen el ámbito de la atención domiciliaria

2. DEFINICIÓN DEL SERVICIO:

El Servicio de Ayuda Domiciliaria es un servicio de naturaleza asistencial y preventiva destinado a ayudar a la persona a permanecer en su domicilio, ofreciéndole una ayuda de atención personal y/o doméstica que posibilite su desenvolvimiento en el propio domicilio y su integración en el entorno comunitario, evitando situaciones de aislamiento.

3. OBJETIVOS DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

Serán objetivos de este servicio:

a) Prevenir el deterioro, mantener y/o compensar la pérdida de autonomía y mejorar la misma, prestando ayuda parcial y/o total para realizar actividades básicas de la vida diaria, necesarias para su cuidado personal, y/o actividades instrumentales de la vida diaria.

b) Fortalecer el sentimiento de seguridad de las personas usuarias.

c) Detectar situaciones de necesidad que pudieran requerir la intervención de otros servicios.

d) Favorecer la integración de las personas usuarias en su entorno comunitario evitando situaciones de aislamiento y/o exclusión.

e) Posibilitar, siempre que resulte viable, la permanencia de la persona en el domicilio el mayor tiempo posible, con una calidad de vida aceptable, retrasando o evitando el ingreso en un servicio de alojamiento o centro residencial.

f) Ofrecer apoyo a las personas cuidadoras que constituyen la red sociofamiliar de apoyo de la persona usuaria y contribuir a la liberación parcial de su tarea de atención, con el

fin de que dispongan de condiciones adecuadas para su propio desarrollo personal, profesional y social.

g) Sustituir ocasionalmente a la persona cuidadora principal, que habitualmente atiende a la persona usuaria, en razón de la ausencia temporal de aquélla.

h) Complementar el cuidado de menores cuando sus progenitores o tutores no pueden proporcionarle el mismo de forma adecuada.

i) Mejorar el clima convivencial de familias en situación de crisis, causadas por diversos factores psico-fisico-sociales y prevenir los riesgos derivados de los mismos.

4. POBLACION BENEFICIARIA

Con carácter general el perfil de las personas usuarias de este servicio se corresponderá con el de aquellas personas y/o grupos familiares que requieran, en razón de su pérdida de autonomía, o situación de vulnerabilidad, de la intervención temporal o permanente de un servicio de apoyo en las actividades básicas de la vida cotidiana para continuar residiendo en su domicilio habitual.

En el marco el Sistema Vasco de Servicios Sociales el servicio de ayuda a domicilio está dirigido, conforme establece el Decreto 185/2015, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, a las personas en situación de dependencia y a personas en riesgo de dependencia

